

Kinpart⁶⁰

www.hurtzaroikastola.eus

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2014ko
ABENDUA





Aurkibidea

Hautzaro informatzen.....	3
Euskararen txokoa	15
Hatzak bete lan	18
Hautzaro Ikastola	19
Gu ere kazetari	39

txinpart⁶⁰

www.hautzaroikastola.eus

L.G.: SS-129/2001



ARGITARATZAILEA

Hautzaro ikastola
Elorrondo, z/g
20159 Oiartzun
© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Kaixo irakurle:

2014–15 ikasturteko erronka garrantzitsu bat osasunerako elikadura jasagarria (eskola agenda 21) ikasle eta familiekin lantzea izango da. SUKALDATU egitasmo berria hor kokatu dugu. Lehen hiruhilekoan ikasi eta landutakoari esker, opor horietarako ondorengo menu goxo eta interesgarria proposatzen dizuegu:

1. ZIZKA-MIZKAK:

- ▮ Ikastolako instalakuntzak berritzen
- ▮ Ikastolako mendi taldeko egutegia
- ▮ Eskolaz kanpoko ekintzak
- ▮ Errigora
- ▮ Euskararen eguna
- ▮ KMK14 erronka
- ▮ Xiberoa-Oiartzun hitzarmena
- ▮ Eta beste hainbat

2. SARRERA:

- ▮ Ikastolako berriak

3. PLATERA NAGUSIA:

- ▮ Haurtzaro Ikastolako ikasleen lan bikain eta eskusiboak,
 - Urmendi eta Oiartzoko artikulua interesgarriak
 - eta, Gu ere kazetari

4. AZKEN BURUKOA EDO DESERTA

- ▮ Gure 3 urteko ikasle berrien argazki koloretsu, alai eta gozoak

ETXEKO PLATERA BEREZIA, OIARTZUAR GUZTIOI GOMENDATU ETA AHOKATZEN DIZUEGUNA:

- ▮ Txipart aldizkariaren erdiko gehigarri berezian, Ikastolako proiektuari buruzko informazioa.

Menu goxo horretaz gozatzeko une honetan, Eguberriak ate joka dauzkagu., eta Eguberriekin batera gure herriko hainbat ohitura zahar: San Tomas azoka, Olentzero eguna...

Abenduaren 24ean, OLENTZERO EGUNEAN, BASERRITARREZ JANTZITA GUREKIN KANTATZERA ETOR ZAITEZTE GUZTIOK; eguerdiko 12:30ean elkartuko gara Herriko Plazan ikastolako ikasle, irakasle eta animatzen zareten guraso guztiak!!

Zorionak eta Urteberri on!

OHARRA: WEBGUNEAN ALE OSOA KOLORETAN IKUS DAITEKE



INFORMATZEN

Haurtzaro ikastolaren ezaugarriak



Haurtzaro Ikastola

Denon eskura



ikastolenelkartea



HEZKUNTZA

berritzailea partehartzailea
eleanitza KALITATEA
akademikoa HERRIKOIA
publikoa

HAURTZARO IKASTOLA

Bulego ordutegia:

8:00 - 13:00 eta 14:30 - 17:30

Tel.: 943 49 16 59

www.haurtzaroikastola.eus

olartzun@ikastola.net

HAURTZARO IKASTOLAK ZER ESKAINTZEN DU?

1. EUSKARA ETA KULTURA:

Euskaldun osoak gara, eta eleantzak. Hezkuntza proiektu euskalduna, Euskal Herrikoa. EUSKAL HERRIKO KULTURAN OINARRITUTAKOA

2. KALITATEA DA GURE OINARRIA:

KEI KALITATE EGITASMO INTEGRATUA

3. IKASLEEN EMAITZA ONAK:

Barne ebaluazioan
Ebaluazio diagnostikoan
Herriko lehiaketetan

4. GURE PROIEKTU CURRICULAR

ETA IKASMATERIALA:

URTXINTXA, TXANELA, EKI eta OSTADAR,
ELEANITZ INGELESA, ELEANITZ FRANTZESA

5. IKTeTetan AURRERATUA:

- IKTen erabilera curriculumaren zerbitzura HHtik DBHra: Ikasys, Txanela.net, ostadar.net, EKI proiektuan 2 irakasgai euskarri digitalean lantzen...
- Geletan ekipamendu informatikoak.

6. IKASLEAREN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PRESTATUAK

7. ESKOLA AGENDA 21 IKUSPEGIAN ETA ELKARBIZITZAN OINARRITUTAKO HEZIKETA

8. IRAKASLE EGONKORRAK

9. EUROPARI BEGIRA: Europako irakaskuntza kooperatiba gara, ikastolen elkarte berria sortu dugu; Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatiba. Haurtzaro Ikastola kooperatiba integrala da: langile-gurasoak. Kudeaketa autonomia.

ZERBITZUAK

JANTOKIA

- MENUAK orekatuak
- Bertan egindako janaria
- Siesta egiteko aukera 3 urteko geletako haurrek

GARRAIOA

4 bidaia egiteko aukera

ZAINTZA ZERBITZUA

Goiz eta arratsaldean

2015eko urtarilean izango da 2015-16 ikasturteko matrikulazio garaia, 2 urtetik hasi eta 16 urte bitarteko ikasleentzat. Informazioa eguneratua ikastolako Web orrian aurkituko duzue.

**Bisitatu ezazu gure web orria;
argazki eta bideoen bidez gure proiektua
gertuagotik ezagutu dezakezu!**

www.haurtzaroikastola.eus



Egokitzapena



Urtero bezala, iritsi zitzaigun iraila eta honekin batera ikasturte hasierako bizipenak: aurpegi berriak, espazio berriak, urduritasunak... laburbilduz, emozio eta sentipen ugariren azaleratzea.

Hezitzaileontzat urtero errepikatzen den egoera, baina era berean desberdina izan ohi dena eta familia askorentzat ezezaguna izan daitekeena. Horregatik iruditzen zaigu garrantzitsua, errespetuan oinarrituta, familia bakoitzarekin haurrak behar duen egokitzapen prozesua diseinatzea, eskaintzea, eta bideratzea, beti ere haurra ardatz hartuta.

Haur-eskolara iristen direnerako haur gehienek etxean atxikimendu irudiak finkatuta dauzkate (erreferentziatzako pertsonak, bereziki gurasoak).

"Irudi horiek hain beharrezkoa duen segurtasun afektiboa ematen diote. Hasieran, eskolan ez du segurtasun hori eskainiko dion erreferentziarik. Horregatik, hezitzailea atxikimendu-irudi bihur dadin, atxikimenduaren transferentzia eman behar da etxekoan eta hezitzailearen artean. Lotura berri hori eraiki behar du, beraz. Lotura horrek ahalbidetuko dio haurrari seguru sentitzen, beldurrik ez izaten, eskolan gustura egotea, beste haurrekin harreman aberatsak izaten eta geroko lan guztiaren oinarria izango den esploraziora jotzeko oinarri sendoak eratzen ("Egokitzapena: elkar-lanean ongizatearen bila" A. Urbe, Gara).

Lotura eraikuntza honetan haurra aktiboa izango da, eta berak gainditu beharreko prozesua izango da egokitzapena. Haurrak berak agertuko digu prozesua nola daraman adierazpen desberdinen bitartez (lasaitasu-

HAUR-ESKOLAN



na, poza, irribarrea, kezka, pena, urduritasuna, beldurra, babes beharra, ezinegona...). Prozesu hau ez da beti lineala izaten, eta hasiera ona izan arren, denbora batera atzera egiten duten haurrak ere badaude, baina hau normaltasunaren barruan kokatzen da.

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa da baldintza egokiak bermatzea, eta horretarako, lehenik eta behin bi aldeek inplikazioa behar-beharrezkoa da:

Alde batetik, hezitzailearen jarrera irekiak, entzuteko gaitasunak, errespetuak, goxotasunak, segurtasun emaile izateak... funtzio garrantzitsua jokatu du. Gurasoei dagokienez, berriz, jakitun izanik ezezaguna izan litekeen egoera berri honek segurtasunik eza sor lezakeela, konfiantzaz eta jarrera baikorraz ekitea prozesua errazteko modua izango da.

Honetaz gain, ez dugu ahaztu behar haurraren adina zein den, txertatuko den taldea berria den edo ez, familiaren disponibilitatea nolakoa den...

Ezin diogu idatzi honi amaiera eman hausnarketa bat mahai gainean jarri gabe, aurretik aipatutako baldintza guztiez gain, baztertu ezin dugun faktore garrantzitsu bat baitago: talde bakoitzeko haur kopurua, RATIOA. Goazen, beraz, heldutasunez jokatu eta haurrak behar duenari erantzutera.

Ainhoa Garaño, Koikile Arruabarrena,
Koro Izagirre eta Ibintza Iragorri.
URMENDI HAUR ESKOLAKO HEZITZAILEAK

Ibilaldiak eta ekintzak

HAUR HEZKUNTZA 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH1	URRIAK 21	MENDIBILGO TXARARA	ETXEAK EGITEKO EGURRAK BILDU
HH1-2-3	ABENDUAK 3	IKASTOLAN	EUSKARAREN EGUNA OSPATU
HH1-2-3	ABENDUAK 5	ELIZALDERA	SAN NIKOLAS EGUNA OSPATU
HH1-2-3	ABENDUAK 19	SAN TOMAS IKASTOLAN	SAN TOMAS AZOKA EUSKAL KULTURA IKASI ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTU
HH1-2-3	ABENDUAK 24	ELIZALDERA	GABON KANTAK ABESTU
HH2	URRIAK 10	BIDEGORRIRA	ZUHAITZETAN IZAN DIREN ALDAKETAK IKUSI
HH2	URRIAK 17	URKABERA	UDAZKENEKO FRUITUAK IKUSI ETA BILDU
HH2	URRIAN ZEHAR	TXARAKO BASORA	INGURUAN IZAN DIREN ALDAKETAK IKUSI
HH2	AZAROAK 14	DONOSTIARA	TXILLIDAREN ARTE-LANAK IKUSI
HH2	ZENBAIT OSTIRALETAN	IBARGAIN PARKERA	INGURUA EZAGUTU ETA DISFRUTATU
HH3	IRAILAK 26	HONDARRIBIRA	KAIA ETA HEGAZKINAK AIRERATZEN ETA LURRERATZEN IKUSI
HH3	URRIAK 2	URKABERA	GAZTAINAK BILDU
HH3	URRIAK 10	TXARAKO BASORA	INGURUAN GERTATZEN ARI DIREN ALDAKETAK BEGIRATU
HH3	URRIAK 20	IBARGAIN PARKERA	HOSTOAK BILDU
HH3	URRIAK 24	TXARAKO BASORA	EZKURRAK BILDU ETA INGURUAZ GOZATZERA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH1 1. maila	Irailak 22	Donostiako Zinemaldira	Zinemaz gozatu
LH1 1. maila	Irailak 26	Iturriozko Munaundira	Harremanak sendotu
LH1 1. maila	Azaroak 19	Ergoiengo Luberri Museora	Dinosaurioen gaian sakondu
LH1 1. maila	Abenduak 03	Ikastolan	Euskararen eguna ospatu
LH1 1. maila	Abenduak 05	Iturriotzera	San Nikolas Txikia ospatu
LH1 1. maila	Abenduak 19	San Tomas Ikastolan	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
LH1 1. maila	Abenduak 24	Elizaldera	Olentzerori abestu
LH1 2. maila	Irailak 19	Oialekura	Harremanak sendotu
LH1 2. maila	Irailak 22	Donostiako zinemaldira	Zinemaz gozatu
LH1 2. maila	Urriak 8/9/10	Urmendi haurtzaindegira	Haurtzaroaren garapena behatu
LH1 2. maila	Azaroak 06	Hondarrabira	Erdi Aroko hiribildua ezagutu
LH1 2. maila	Abenduak 03	Ikastolan	Euskararen eguna ospatu
LH1 2. maila	Abenduak 05	Iturriotzera	San Nikolas txikia ospatu
LH1 2. maila	Abenduak 19	San Tomas Ikastolan	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
LH1 2. maila	Abenduak 24	Elizaldera	Olentzerori abestu

Ibilaldiak eta ekintzak

Lehen Hezkuntza 2. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH2 3-4 maila	Irailak 22	Donostiara (Zinemaldia)	Zinema-zaletasuna. Talde kohesioa
LH2 3 maila	Urriak 1	Elizalde-Gurutze	Auzoak ezagutu (gaiaren lanketa)
LH2 3 maila	Urriak 16	Iturriotz-Ugaldetxo-Arragua	Auzoak ezagutu (gaiaren lanketa)
LH2 3 maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen eguna ospatu
LH2 3 maila	Abenduak 19	San Tomas Ikastolan	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
LH2 3 maila	Abenduak 24	Iturriotza	Olentzerori abestu
LH2 4 maila	Irailak 22	Zinemaldia/ Kristina- Enea	Zinemaldiko pelikulaz gozatu. Zikloko harremanak (ibilaldia)
LH2 4 maila	Urriak 20	Eskualdeko ibilaldia	Txanelako 1. unitatean landutakoaren harira
LH2 4 maila	Abenduak 1	"Entrevista a personas emigrantes" Grabación de un documental.	Txanela 2. unitateko gaztelaniako proiektua gauzatu
LH2 4 maila	Abenduak 3	Amerikako emanaldia	Txanela 2. unitateko proiektua gauzatu
LH2 4 maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen eguna ospatu
LH2 4 maila	Abenduak 19	San Tomas. Ikastolan	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
LH2 4 maila	Abenduak 24	Iturriotza	Gabon kantak abestu


Lehen Hezkuntza 3. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH3 5. maila	Irailak 18	Areto nagusira: Bertso saioa	Bertsolaritza sustatu
LH3 5. maila	Irailak 19	Bianditz (Oiartzun)	Gure arteko harremanak sendotu
LH3 5. maila	Urriak 15	Donostiako Zientzia Museora	Txanelako gaia jorratu: Unibertsoa
LH3 5. maila	Urriak 29	Oiartzun	Herri Musikaren Txokoa
LH3 5. maila	Urriak 29	Oiartzun	Elizako kanpandorrera bisita
LH3 5. maila	Azaroak 14	Ikastolan, gelan, sare sozialei buruzko tailerra	Nola baliatu Internetez eta sare sozialez arriskuak murriztuz
LH3 5. maila	Azaroak 19-21	Areto nagusian	Sukaldatau tailerrean parte hartu
LH3 5. maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen eguna ospatu
LH3 5. maila	Abenduak 16	Gernika	Batzarretxea eta Euskal Herria museoa ezagutu
LH3 5. maila	Abenduak 19	San Tomas. Ikastolan	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
LH3 6. maila	Irailak 18	Areto nagusira: Bertso saioa	Bertsolaritza sustatu
LH3 6. maila	Irailak 29	Zumaia	Flischak aztertu
LH3 6. maila	Urriak 9	Luberri geologia museora	Gure luraren geologiaz ikasi
LH3 6. maila	Azaroak 14	Ikastolan	Antton Mendizabal eskulturagilearekin topada
LH3 6. maila	Azaroak 18-20	Areto nagusian	Sukaldatau tailerrean parte hartu
LH3 6. maila	Azaroak 24	Tolosara	32. Titirjaian parte hartu
LH3 6. maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen eguna ospatu
LH3 6. maila	Abenduaren 10etik 17ra	Ikastolan	Sexu heziketako tailerrean parte hartu
LH3 6. maila	Abenduak 19	San Tomas. Ikastolan	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu

Ibilaldiak eta ekintzak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH 1	Irailak 12	Haurtzaro –Karrika– ikasturte hasierako ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotu
DBH 1	Urriak 22	Zientzia museoa	Unibertsoa ezagutu
DBH 1	Urriak 28	VII. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatu
DBH 1	Azaroak 7	Zientzia astea, Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutu
DBH 1	Azaroak 28	Ikimilikiliklik	Jaso ikastolako ikasleek eginiko antzerkia ikusi
DBH 1	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatu
DBH 1	Abenduak 19	San Tomas azoka	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
	Abenduak 24	Olentzero eguna. Altzibar	
	Irailak 12	Haurtzaro –Karrika– ikasturte hasierako ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotu
DBH 2	Urriak 21	Mirandaola Zerain	Burdinola, haize-ola eta zerrategiek euskal industrializazioan eta ekonomian izan duten eragina ikusi
DBH 2	Urriak 28	VII. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatu
DBH 2	Azaroak 7	Zientzia astea, Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutu
DBH 2	Azaroak 28	Ikimilikiliklik	Jaso ikastolako ikasleek eginiko antzerkia ikusi
DBH 2	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatu
DBH 2	Abenduak 19	San Tomas azoka	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
DBH 2	Abenduak 24	Olentzero eguna. Altzibar	
DBH 3	Irailak 12	Haurtzaro –Pagoagalarre eta Pullegiko kaskora– ikasturte hasierako ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotu
DBH 3	Urriak 20-24	Euskarako motibazio saioa	Euskararen inguruko hausnarketa
DBH 3	Urriak 28	VII. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatu
DBH 3	Azaroak 7	Zientzia Astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutu
DBH 3	Azaroak 25	Emakumeen kontrako tratu txarrak "Kalean uso etxean otso" hitzaldia. Ikastolan	25. emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna
DBH 3	Azaroak 28	AESLEME. Hitzaldia ikastolan	Moto istripuek sorrarazten dituzten ondorio larriaz jabetu
DBH 3	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatu
DBH 3	Abenduak 19	San Tomas azoka	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
DBH 3	Abenduak 24	Olentzero eguna	
DBH 4	Irailak 12	Haurtzaro –Pagoagalarre eta Pullegiko kaskora– ikasturte hasierako ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotu
DBH 4	Irailak 30-urriak 1	Piragua ikastaroa. Bidasoan	Santiagotarrak elkarteak eskainitako kirol jarduera
DBH 4	Urriak 21	Cabreroren hitzaldia. Ikastolako areto nagusian	Orientazio saioa guraso eta 4. mailako ikasleentzat
DBH 4	Urriak 20-24	Euskarako motibazio saioa	Euskararen inguruko hausnarketa
DBH 4	Urriak 28	VII. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatu
DBH 4	Azaroak 7	Zientzia Astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutu
DBH 4	Azaroak 27	Irudi berriak	Etikako irakasgaien inguruko lanketa
DBH 4	Abenduak 2	Hitzaldia: Hiesa	Hiesaren eguna Haurtzaron
DBH 4	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatu
DBH 4	Abenduak 15	top@dip: Passion for knowledge quantum13	Zientziaren inguruko proiektuan parte hartzea, zientzia zientzialarien eskutik
DBH 4	Abenduak 19	San Tomas azoka	Euskal kultura ikasi eta euskal tradizioetan parte hartu
DBH 4	Abenduak 24	Olentzero eguna	



Ikastolako instalakuntzak berritzen



Ikasleen udako oporrak ikastolako eraikuntza berritzeko une aproposena izaten da. Aurtengo udan ere lan batzuk bideratu ditugu.



Alde batetik, ikastolako sarreran, psikomotrizitate gelako kanpoaldeko itxitura aldatu dugu. Itxitura hori oso hondatua zegoen; ura sartzen zenez hezetasun handia genuen barruan, eta ondorioz leku hori erabil-tzea ezinezkoa zen. Zer egin dugu?

Kristalak kendu eta beste itxitura bat egin, barrualdea eta kanpoko aldea txukundu.

Barruko espazioaren banaketa momentuko beharreta-ra egokitu dugu. Zati bat psikomotrizitate gelako mate-


riala gordetzeko izango da, eta beste bi espazio sortu dira eskolaz kanpoko ekintzetarako materiala bertan gordetzeko: eskola kirola, atletismoa eta euskal dan-tza.

Bigarren berritze lan esanguratsua LH6ko pasilloko komunak berritzea izan da: komunen antolaketa berri-tu da eta ezinduentzat komuna ere egin da.

Bi berritze lan horiez gain besta hainbat txiki bideratu ditugu guztion erabilerarako.

ARGAZKI lehia-keta VII. EDIZIOA

Aurtengo udazken lehorra eta beroa aprobetxatuz, kurtso hasierako ibilaldia egin genuen DBH 1. ziklokoek Ergoiendik barrena Karrika aldera, eta 2. ziklokoek Pagolarretik Pullegiko sorora. Eguraldiak lagun, elkarrekin txangoan eta jolasean tarte polita pasa eta argazki ederrak ateratzeko aukera izan genuen. Ondoren ohiko argazki lehia- ketan parte hartu dugu. Ziklo bakoitzean sari bana eman dute. Saridu- nak hauek izan dira: Eneritz Aduriz eta June Galardi "Zeru urdin" ize- neko argazkiarekin eta Luka de la Peña "Hi, Txomin!" argazkiarekin.





HAURTZARO IKASTOLAKO

Mendi Taldea

urteko irteerak

2014-10-25/26

OIALEKUN KANPALDIA eta OIALEKU-OIARTZUN IBILALDIA

Arrakastatsua izan zen Haurtzaro ikastolako mendi taldeak eginiko ikasturte honetako lehenengo deialdia.

Eguraldi bikainak lagunduta 75 lagun, erdi eta erdi guraso eta ikasle ginelarik, elkartu ginen Oialekuko I. kanpaldian. Giro ezin hobean guztion artean kanpin-dendak jarri ondoren jolasean eta solasean aritu ginen afaltzeko ordurarte. Gauean, gutxitan ikusteko aukera dugun izarren argipean, lotarako gogo gutxi eta parrandarako sobera zuenik izan zen. Egunsentian gosari goxo batekin indarberrituta ekin genion ibilbideari. Hainbat geldialdi eginez Gainbeltz, Kausoro eta Zariako gailurretik Otraitzeko etxolara jaitsi eta hamaiketako egiteko parada izan genuen. Bertatik Sorondon urez hornitu eta gero, Elorrietako kaskora igo eta hainbatentzat ezezagun zen leku honetan ikuspegi panoramikoaz gozatu genuen. Sastarretik hartuta Matxindatik behera, Iturriotz auzoan barrena amaiera eman genion ibilbide bikainari.

2014-11-23

NEGU JAIA

Astigarragan dagoen Santiyomenditik hasita Santiyo bidea kontrako norabidean eginez ezagutuko dugu nola lotu daitezken bi herri hauek ibilbide eder hau eginez.

Iturriotz auzoko Iturri Berri elkartearen bazkari goxo batekin izango du aurten ere Negu Jaiak amaiera.

2015-01-31 / 2015-02-01

IRAUPEN ESKI IKASTAROA SOMPORTEN

Iraupen eski irteerak badu bere horretan xarma. Bi egunetan zehar, dakienak eta ez dakienak ere aukera izango baitu elurraz modu erraz batean gozatzeko. Frantzian dagoen Somporten (1600m) izango da ikastaroa, bakoitzaren mailaren arabera. Horretarako hainbat begirale / irakasleren laguntza izango dugu. Aurten ere, Candanchun dagoen aterpe batean hartuko dugu ostatu. Erraketekin zeharkaldia egiteko aukera ere izango dugu.





2015-02-22

DONOSTIA-DONIBANE

Kostaldera goaz! mendebaldetik ekialderantz, ibilbide lasai, erraz eta eder hau hartuko dugu, Donostia bertatik hasita. Ulia du izena Donostian hasi eta Pasai San Pedron bukatzen den mendiak. Zubi erromatarrek paretik pasa eta gerra zibileko gordeleku pareia ikusi eta, agian, bertara sartzeko aukera izango dugu.

Pasai San Pedroko itsasargitik beherakoan Hondartxotik barrena Donibanerako txalupa hartuaz emango diogu bukaera ibilbideari.

2015-03-15

ZUMAIKO FLYSCHAK

...eta berriz ere gure kostaldearen orografia zoragarria miresteko aukera ez dugu alperrik galdu nahi: Zumaiako Flyschetan amaituko dugu ibilbidea.

2015-04-26

ADARRA

Oiartzundik gertu dagoen Adarrak (811m) mitologikoki badu balioa eta mendi ederra dugu. Ibilbide bikainak egiteko aukerak ematen ditu. Besabin amaitzen den errepidetik abiatuko gara eta ibilbide zirkularra eginez igo eta jeitsiko dugu Adarra.

2015-05-24

BIDARRAIEN RAFTINGA

Seguruenik zaparradaren batek harrapatuko gintuen aurreko irteeraren batean, baino irteera honetan apropos bustitzera goaz!

Prestakuntza fisiko berezirik ez dugu behar Errobi ibaian behera, segurtasun neurri guztiak hartuta noski, gozatzeko eta barreak egiteko.


2015-06-06

HAURTZARO IKASTOLA EGUNA: GINKANA

Ikasleen arteko taldekako lehia honek aspaldidanik du arrakasta: tirolina, jokoak, jolasak, ibaian zehar gurgpilekin jaitsiera, bizikletarekin aurrera egiteak... guzti hau jai erraldoi horretan gurasoen laguntzari esker antolatzen den ekintza dugu.

Irabazi edo ez, bost axola!

**Goza dezagun gureaz,
gureekin!**



Eskolaz kanpoko ekintzak

2014-2015

Aurten ere gogotsu ekin diogu 2014-2015 ikasturteari eta dagoeneko martxan ditugu eskolaz kanpoko ekintza guztiak. Aurreko ikasturtearen dinamikari jarraituz, izen emateek gorantz egin dute beste behin. 15 ekintza eskaini ditugu aurten, kultur eta kirol arloko ekintzak. Ikasle asko animatu dira parte hartzera eta zenbait ekintzatan bereziki gorakada nabarmena ikusi ahal izan da.

Hona hemen datu batzuk:

Kirol arloko ekintzetan

- Kenpo: 30 ikasle
- Eskola kirola: txikien edo benjaminetan 82 ikasle eta alebin edo kimuetan 78 ikasle. Denera, LH 3. eta LH 6. maila bitarteko 160 neska-mutilek hartzen dute parte eskola kirolean.
- Atletismoa: 34 ikasle
- Xakea: 37 ikasle
- Gurpil gaineko irristaketa: 16 ikasle

Kultur arloko ekintzetan

- Euskal dantzak: 74 ikasle
- Jolas txokoa: 73 ikasle
- Eskulanak: 114 ikasle
- Dantza garaikidea: 137 ikasle
- Malabareak: 26 ikasle
- Antzerkia: 46 ikasle
- Bertsolaritza: 18 ikasle
- Dantza txapelketak: 5 ikasle
- Abesbatza: 11
- Musika Tailerra: 22

Datuak aurrean edukita, bistan da eskola kirolean, eskulanetan eta dantza garaikidean gorakada esanguratsua izan dela. Eskulanetan eta dantza garaikidean egunero bi talde atera behar izan ditugu. Eskola kirolean, berriz, 16 talde sortzera iritsi gara aurten, inoiz baino talde gehiago alegia. Hiru ekintza berri ere martxan jarri ditugu: gurpil gaineko irristaketa, abesbatza eta musika tailerra. Azken hauek ere arrakasta izan dute.



Aipatu bezala, ikasleak martxan dira, baina ikasturte guztia dute aurretik! Ekintza bakoitzean gauza asko ikasi, praktikan jarri eta, urtero bezala, ikastolaren egunean erakustaldi bikainak emateko. Euskal dantza eta eskola kirola urtean zehar izaten diren asteburuetan, jardunaldietan eta dantza saioetan ere parte hartzen dute.

Urtero tarte txiki bat eskaintzen diegu ekintza ezberdinei. Oraingoan, gurpil gaineko irristaketa, abesbatza eta musika tailerrari eskainiko diegu.

GURPIL GAINEKO IRRISTAKETA

Jarduera honetan, HH1etik hasi eta DBH 4. mailara arteko ikasleek parte hartzeko aukera dute. Kasu honetan, HHko talde bat osatu da eta LH eta DBHkoekin beste bat.

Gurpil gaineko irristaketa apurka-apurka indarra hartzen ari da kirol munduan eta horren adibide garbia da gaur egungo haurrek daukaten kirol honetarako zaletasuna. Maider eta Naiara Mitxelena ahizpak dira ekintza honen monitorea.

Zein da gurpil gaineko irristaketaren helburua? Zer lantzen da?

Maider eta Naiara: Batez ere kirol honen inguruko zaletasuna zabaltzea da helburua, aldi berean disfrutatu eta ondo pasatzea. Oinarritzko gauzak irakasten dizkiegu: oreka eta posizio egokia mantentzen, kurbak hartzen, frenatzen, erortzen, saltoak egiten...

Nolakoa izan da ikasleen erantzuna saioetan?

Maider eta Naiara: Saioetako parte hartzea oso ona da eta ikasteko gogoz etortzen dira. Batez ere txikiak patinak janzteko garaian aztoratu egiten dira, baina orokorrean oso gustura etortzen dira denak eta asko ikasten ari dira.

Ikasleen iritzia jakiteko asmotan...

Zergatik eman duzue izena jarduerara honetan?

HH eta LHko ikasleak: Gehienoi patinatzea asko gustatzen zaigulako eta beste batzuek patinatzen ikasi nahi dugulako. Ekintza dibertigarria eta erakargarria iruditu zitzaigun eta izen ematera animatu ginen.



Zer da gehien gustatzen zaizuena? Eta gutxiena?

HH eta LHko ikasleak: Orokorrean dena gustatzen zaigu, baina gehiena jolasak eta jokoak egitea gustatzen zaigu. Adibidez Tximeleta harrapatzailea asko gustatzen zaigu. Gutxiena gustatzen zaiguna patinekin ondo bultzatzen ikastea da, zaila egiten baitzaigu.

ABESBATZA

Aurten berriro ere ikasleek ekintza honetan izen emateko aukera izan dute. Duela urte batzuk ere egiten zen, baina tartean etenaldi txiki bat egon da. Maddalen Dorronsoro da jarduera honetako monitorea. Ilusioz ekin dio ikasturteari talde polita osatzeko aukera izan baitu, ikasleen erantzuna oso ona izan baita. 11 neska-mutil animatu dira beren ahotsak trebatu eta kantatu desberdinak landu eta ikasiz ondo pasatzera.

Zein da abesbatzaren helburua? Zer lantzen da?

Maddalen: Abesbatzak helburu bat baino gehiago ditu, besteak beste, ahotsaren ohitura onak ikastea, abestearen ohitura onak barneratzea, elkar entzuten ikastea eta talde lanean aritzen ikastea. Aldi berean, arnasketa, ahoskera eta entzumena ere lantzen dira.

Nolakoa da ikasleen erantzuna?

Maddalen: Oso ona! Oso jarrera ona daukate eta ikasteko gogo izugarria dute. Pozgarria da ikasleak halako gogoia dutela ikusi eta sentitzea.

Zer da gehien kostatzen zaiena? Eta gutxien?

Maddalen: Gehiena jantokitik gelarako trantsizio hori egitea kostatzen zaie, jolasten gustura egoten baitira. Baina behin martxan hasten garenean segituan animatzen dira. Asko gustatzen zaie abestea, batez ere abesti berriak.

Ikasleen iritzia jakiteko asmotan...

Zergatik eman duzue izena abesbatzan?

Abestea gustatzen zaigulako eta nola hobetu ikasi nahi dugulako.

Zer egiten duzue?

Abestiak ikasten ditugu, ahots tonu ezberdinak nola egin behar ditugun ere ikasten ari gara. Denok ez dugu ahots berdina eta nola landu ikasten ari gara.



MUSIKA TAILERRA

Ikastolako txikiei zuzendutako jarduera da. 4-5 urteko ikasleentzat eskaintzen da. Jarduera honetan, jolasaren, abestien eta ipuinen bidez musikaren helburuak lantzen aritzen dira. Ekintza honetako monitorea ere Maddalen Dorronsoro da. Jolas eta abesti ezberdinak lantzeko musika tresna txikiak ere erabiltzen ditu, haurrek musika tresna desberdinekin lehen kontaktua izan dezaten. Mugimendua ere sartzen du abestiekin batera.

Zein da musika tailerraren helburua? Zer lantzen da?

Maddalen: Helburu nagusia musika munduarekin ohitzen lortzea da, lehen pausoak ematea, bizitzea. Horretarako musika hastapenaren lehen faseak lantzen dira bereziki: soinu parametro desberdinen ezaugarria eta identifikazioa (soinua, isiltasuna, fuertea, suabea), instrumentu txikien erabilpena, musika eta mugimenduaren arteko harremanaren bizipena eta ulermena.

Haurrak saioetara gustura etortzen direla nabaritzen duzu?

Bai; oso gustura etortzen dira. Lehenengo aldia da halako zerbait egiten dutela askorentzat eta hasieran baten bat ezkor xamar etortzen zen arren, orain oso gustura dabilta denak.

Ikasleen iritzia jakiteko asmotan...

Zer egiten duzue jolas txokoko saioetan?

Abestu, margotu, musikak sortu... Entzunaldiak ere egiten ditugu, istorio bat asmatzen dugu animaliekin eta gero animalia horiei musika tresna desberdinak jartzen dizkiegu (triangeluak, txindatak, danborra, kaxa txinatarra...), amaieran animalia horiek izango bagina bezala musika tresna horiek jotzen ditugu.

Zer da gehien gustatzen zaizuena egitea? Eta gutxiena?

Dena gustatzen zaigu. Batez ere abestea, dantzatzea eta instrumentuak jotzea.



Eskolako Agenda 21... AURTEN ERE BAI!

UNESCOK Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Agenda 21 proiektua saritu du: garapen jasangarrirako hezkuntzarako egindako lanagatik aintzatespena jaso du proiektu honek.



Aurten hau dugu gaia:
ELIKADURA JASANGARRIA.
Jasangarria eta arduratsua.

Ba al zenekien...

FAOren ustez (Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundea) aurrerapausorik egiten ez badugu, munduan 680 milioi bat pertsona goseak egon daitezkeela, eta horietatik 250 milioi Afrikan? www.fao.org

Ba al zenekien...

badaudela elikagaiak gure mahaietara iritsi arte hainbat kontinente zeharkatu dituztenak? Adibidez, Ipar itsasoko arrainei esker lortutako proteina duten irinak Tailandiaraino garraiatzen dira arrain-haztegietan ganben kumeei jaten emateko eta azkenik, Europan saltzen dira.

Ba al duzu erantzunik galdera hauen aurrean?

- Zer dago elikagai baten ekoizpenaren atzean?
- Produktu guztiak naturatik datozela jakinda, ez al gara iza-dia gehiegi ustiatzen ari?
- Landare gehiegi landatzea edo bereizi gabeko arrantza eta ehiza ez al dira gaurko ogia eta biharko gosea?
- Zer informazio daukagu kontsumitzaileok elikagaiaren ezaugarriak ezagutzeko?

Animo ba!

Berriri ere lan bikainak egingo dituzuela ziur gaude.

ERRIGORA

**Nafar hegoaldeko uzta,
euskarari puzka**

Zein helburu ditu Errigora kanpainak?

Nafarroa hegoaldeko produktuak Euskal Herriko herrietara eramatea, bertako produktuak kontsumitu ditzagun.

Euskara oraindik ofiziala ez den Nafarroako eremuko euskalgintzari bultzada ekonomikoa ematea.

Lortutako emaitzek 2014ko kanpainaren helburu guztiak gainditu dituztela diote antolatzaileek: 12.000 saski banatu dira eta euskararen alde 151.000 € bildu dira. Primera-ko berria, alajaina!

Haurtzaro Ikastolako eta Urmendi Haurreskolako familiek eta langileek jarri dugu gure aletxoa lorpen horretan. Iazko kanpainak gure artean izandago harrera ona ikusirik, aurten ere informazioa zabaldu dugu gure buletina eta web orriaren bidez, eta guztion artean emandako bultzada bikaina izan da aurtengoan ere: 90 saski !

ERRIBERA ERRIGORA HERRIGARA



Kuadrillategiko Konfuak

Kaixo denai!

Jakingo zutenez hasi dugu aurtē e Kuadrillategi, indartsu hasi're. 120 gazte ta 6 hezitzailek osatzen dugu aurtengo egitasmua ta udaran indarrak hartu ondoren, denak e gogotsu heldu yogu ikasturte berriyai.

Aurreneko sayua merendola haundi batekin hasi genun ta kusi ahal izan genun gaztiak sekulako irrikakin alletu dila! A ze motibaziyua! Ta gutzako're, hezitzailek aleya, a ze txutia martxa hartzen hasteko! Bejon dizutela! Arratsalde hartatik saio batzuk pasatu dia gaur arte ta ekintza asko in ttugu; ekintza hoik antolatzeke astelehen arratsaldetan gaztiakin (aste bakotxin gazte talde difentikin) biltzen ga Fermiñenen ta beayen nahi ta zaletasunetatik abittuz osatu dugu abendua bittarteko egutegiya, denan artin sortu ta aurrea eramateko asmuakin. In ttugun ekintzen artian beldur gaua, pintxo potia, altxoraren bila, sketch lehiaketa ta karaokia aipatu nahiko genittuzke. Hoitaz gain, irteera bat e in dugu: Txuri Urdin izotz parkin izandu ga ta, ipurdikon bat gora beheara, zoragarri pasatu dugu!

Hemendik aurreako're ekintza asko ttugu prest ta beste asko ikasturtia bukatzeako pentsatu ta ingo ttugunak! Aurrexio izango zute gure berri; bittartin, ongi-ongi segi ta erki bukatu urtia!

KUADRILLATEGIKO HEZITZAILIK



15

eskuttun EUSKARA ELKARTEA



Aurtē ere, ikasturtearekin batera urrian txanpa hartu eta jarri gara gu ere martxan. Beti bezala merendola bat pres-tatu diegu DBH lehenengo mailako ikasleei ongi etorria egiteko eta arrazoi batengatik edo beste batengatik aurtē ere ikasle dezente animatu dira gurekin batera lan egiteko asmoz. Beraz, gogotsu hasi dugu ikasturte berria euskara bultzatzeko asmoz. Gainera aurtē lehen mailatik gogotsu datoz kide berriak bai kopuruz eta bai fundamentuz. 40 laguneko lagun taldea osatu dugu eta bagoaz pixkanaka martxa hartzen.

Lehenengo kanpaina azaroaren 24an hasi zen eta abenduaren 5ean amaituko da. Bitarte horretan, idatzizko euskara lantzeaz gain, guretzat hain garrantzitsua den euskararen eguna edo, txikiek dioten bezala, Argitxoren urtebetetze eguna, ospatu dugu, baita Xabierren eguna ere. Oso ongi bideratu dugu kanpaina hau eta dagoeneko beste bi kanpainetan daukagu burua, hau da, jolasen kanpaina eta Juul kanpaina. Horretaz guztiaz gain, herriko hainbat erakunderekin batera, oiartzuera lantzeko taldean parte hartzen ari gara. Ekintza ugari bideratzeko asmoa dugu, besteak beste: iaz egin zen eran, motibazio saioak, oiartzuerazko hitzak bultzatzeko egitasmoak... baita ikastolako hainbat ekintzatan ere, San Tomas azokako aurkezpena, inauteritako jaialdia...

Ikusten duzuenenez, lan dexente daukagu egiteko, baina ez dugu gogorik falta. Aurtengo partaideen gogoa ikusita badakigu esku onetan dagoela euskara eta geroz eta indartsuagoa den Eskuttun elkarte. Animoak DBHko ikasle guztiei!

HAURTZARO BERTSO ESKOLA 2014-15

Orain dela 33 urte sortu genuen gure ikastolako Bertso Eskola. Beraz, adinez zahar samarra dela esan behar, baina urtero zaharberritzen dugunez, aurten ere erabat biziberrituta dator kigu Haurtzaroko Bertso Eskola.

14 bertsolari gazte-gazte ditugu jota fuego lanean hiru taldetan banatuta. Hauentzat hiru irakasle lehen mailako ere bai, zein baino zein prestatuago.

LHko 6. mailakoen taldean Malen Frantsesena, Aitor Iparragire, Laura Pardavilla eta Ekhi Goia ari dira Iraitz Mateo irakaslearekin, asteazken arratsaldeetan.

DBHko 1. mailakoen taldean berriz, Markel Irastorza, Malen Elizasu, Julen Lasarte eta Haizea Mateo, Karlos Aizpurua irakasle adituarekin, ostegun arratsaldeetan.

DBHko 2. mailatik, Ekain Lopez, Araitz Sagarna, Ekaitz Salaberria, Oliver Zubillaga, Unax Arriaran eta Kimetz Tole dok ekin diote lanari, Jon Otegi irakaslearen ardurapean. Hauek ere asteazken arratsaldeetan.

DBHko 3. eta 4. mailakoak Udala Bertso Eskolara pasatu dira, beren trebatze lana zorroztera eta fintzera.

Bertsolari gaztetxo hauek ikusi eta entzuteko aukera izango dugu ikasturtean zehar, ikastolako ospakizunetan, Eskolarteko Txapelketan, Lexoti Sarian eta beste hainbat ekitalditan.

Bejondeizuela!

2014-10-27
Txinparterako
antton



EUSKARAZ BIZI: euskararen eguna

Urtero bezala, Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatu genuen Haurtzaro ikastolan. Goizean, pregoia entzun eta euskararen aldeko konpromisoak hartu zituzten ikasleek, eta arratsaldean, berriz, euskarra gogoan hartuta adin ezberdinetako ikasleek ekintza dezente burutu zituzten: Mihiluze jolasa, esketxak, bideo-emanaldia...

Gainera, Argitxoren bisita izan genuen. Ttikienekin bere urtebetetze eguna ospatu ondoren, arratsaldeko ekitaldi orokorrean parte hartu zuen eta, pozaren pozez, euskararen alde egindako lana eskertu zigun, horrela bere krisailuak pizturik jarraituko baitu. Hau guztia antolatzen Euskaraz Bizi taldea eta Eskuttun ikasleen euskara elkarteak ari ziren, eta aurrera eramateko ikasle eta irakasleen gogoak eta laguntza jaso zuten.



Euskararen TXOKOA





HAUR HEZKUNTZA 1

TANTTOREKIN EGOKITZEN

HIRU URTEKOAK IKASTOLAN GERO
ETA LASAIAGO ETA GUSTURAGO
SENTITZEN DIRA. EKINTZA HAUEK
EGITEN DITUZTE:

- SUKALDEAN ETA ERAIKUNTZETAN
ELKARREKIN JOLASTU.
- TENPERAZ GOZATU.
- TXERRITXOEN ETXETXOAK EGIN.
- BASORA JOAN

EA GERO ETA HOBETO EGOTEN
DIREN IKASTOLAN.

TTANTTO



Gure ikastolako 0-3 urte bitarteko haurrek zertan aritzen garen jakin nahi duzu?

0-3

URTE

Egunero

7:30etatik 17:00etara
egon naiteke bertan.

Haurtzaro Ikastola
Haurtzaro Ikastola

Ongi etorri

GURE IKASTOLARA

Jolastuz, esperimentatuz eta
sortuz handitzen ari naiz
gelakideekin batera.

Lagun artean eta
irakaslearekin otordu eta
siesta goxoak egiten ditut
nire gelan.

Eguneroko bizipenetan
nire irakaslea dut
bidelagun.

+3

HAUR HEZKUNTZA



HAURREN GARAPENERAKO

3 urtetan, lehen egunetan,
poliki poliki hasi nintzen
ikastolara.

**LASAI ETA GOXO
SENTITU NINTZEN**



**ASTERO PSIKOMOTRIZITATE
SAIOAK DITUGU;**

bakoitzari gure burua
ezagutzen laguntzen digu.

PRIMERAN PASATZEN DUGU!!



Aldiro ari naiz lagunekin

**ESPERIMENTUAK EGITEN ETA
GAUZA BERRIAK IKASTEN**




Ikastolako beste ikasle guztiekin,

**OSPATZEN DITUGU
EUSKAL OHITURAK:**

San Tomas azoka,
Olentzero eguna.

Horra! Horra!
gure Olentzero...



+6

LEHEN HEZKUNTZA

IKASLEAREN



PROIEKTU ASKO

egiten ditugu
mailaz maila



PROIEKTUAK MAILA ARTEAN

partekatzen
ditugu




IRAKURTZEN ETA IDAZTEN ikasten dugu




GURASOAK ERE HEZIKETAKO PARTAIDE DIRA,

proiektuetan pare hartuz,
elkar lanean



IRTEERA PROFILERUNTZ



**TXANELA
TXALUPATXOAK**
LHtik DBHrako
bidean garamatza



**OSASUNA ETENGABE
ZAITZEN DUGU**
hezkidetzatik,
gorputz hezkuntzatik,
sexu heziketatik...



**HIZKUNTZAK
ERABILTZEN DITUGU
KOMUNIKAZIORAKO:**
euskara, gaztelania
eta ingelesa



ARTEA ERE
gure parte da



**IKT
HAINBAT BALIABIDE
ERABILTZEN DITUGU EGOKI:**
liburu digitala, blogak, ikasys,
ordenagailuak



txalupatxoak

+12

Derrigorrezko Bigarren Hezuntza · DBH

IKASLEAREN



LAGUNEK eta ELKARLANAK
bizitzarako irakasten didate



IKTak IKASTOLAKO JARDUNEAN
ohiko baliabide ditugu

NIRE BURUAREN EZAGUTZAZ ETA ZAINTZEAZ
ARDURATZEN NAIZ:

Osasun Heziketatik,
Hezikidetzatik,
Tutoretzatik ...



EKI PROIEKTUA: HEZKUNTZA EREDU BERRI INTEGRALA.

Konpetentzien garapena du ardatz, horretarako egoerak dira oinarri



IRTEERA PROFILA HELBURU

HANDITZEN GOAZEN HEINEAN
ARDURAK GURE EGINEZ GOAZ:
DBH 4. Mailako IBILALDIAren
finantziazioa KUDEATZEA
dagokigu



BRETAÑA eta EUROHIRIA PROIEKTUEK
elkarrekin bizitzera garamatzate



EUSKAL KULTURA eta
EUSKARA ARDATZ IZANIK
ETA AINTZAKOTZAT HARTUZ,
ELEANIZTUN GARA:
euskaraz, gaztelaniaz,
ingelesez eta frantsesez
jarduten baitugu

ZIENTZIA ASTEAK,
top@DIPC TOPAKETAK
zientziarekin jolastera
bultzatzen gaituzte



EUSKAL KULTURA

25

txinpart⁶⁰

Haurtzaro ikastola · 2014ko abendua

Z

ZERBITZUAK



Eguerdian batzuk etxera joaten dira bazkaltzera eta beste batzuk jangelan gelditzen gara. Oso janari goxoa prestatzen digu egunero sukaldariak. Begiraleek ere pazientzia handia dute gurekin, eta irakasleek bezala informe bat egiten dute gurasoentzat.


Ikastolara autobusean etortzen gara batzuk. Eguerdian etxera ere joan gaitezke.



Goizean eta arratsaldean Zaintza gelan egoten gara batzuk; 8:00etan etor gaitezke ikastolara eta 17:30ean etxera joan.



3 urtetatik hasi eta DBH bukatu arte ekintza osagarrien aukera ugari dugu: kirol ekintzez gain, kultur ekintzak ere baditugu.





HOSTOAK FIRIN-FARAN

INGURUKO GAUZEKIKO ERRESPETUA
ETA JAKIN-MINA GARATZEKO
HH2KOAK URKABE MENDIRA JOAN
GARA. HAN, MENDIA UDAZKENEAN
NOLA EGON OHI DEN BEHATU DUGU:
UDAZKENEKO KOLOREAK, HOSTO
ETA ZUHAITZ MOTAK, FRUITUAK...



HAUR HEZKUNTZA 3 UDAZKENAZ GOZATUZ

HH3KO IKASLEOK UDAZKENA GAIA LANTZEN
ARITU GARA. AURTENGO EGURALDIA
EDERRA APROBETXATUZ, ASKO GOZATU
DUGU. ZENBAIT IBILALDI EGIN DUGU
OIARTZUNGO INGURUTAN. HALA NOLA
URKABERA GAZTAINAK BILTZERA,
IBARGAINERA HOSTOAK JASOTZERA,
BASORA EZKUR BILA...
OSO ONGI PASATU DUGU, NATURAREN
ALDAKETAK BEHATUZ, INGURUNEAK
ESKANTZEN DIZKIGUN AUKERAK
APROBETXATUZ ETA GURE ARTEAN UNE
GOXO HAUEK KONPARTITUZ.

HALA ERE, EZ PENTSA GELAN EZER EGIN EZ
DUGUNIK. IZAN ERE, IRTENALDI HORIETAN
JASOTAKOAREKIN, ARTELANAK EGIN
DITUGU. BESTE BATZUEN ARTEAN,
UDAZKENEKO HOMIRUDI DOTOREAK,
BUZTINEZKO PERRETXXIKOAK ETA
HOSTOEKIN IRUDI ERA ASKOTAKOAK.

GAIARI BUKAERA EMATEKO, GURASOEKIN
ETA AITONA-AMONEKIN BILDUTAKO
PERRETXXIKOEKIN ERAKUSKETA DOTORE
BAT EGIN DUGU. HONEKIN BATERA,
HAINBAT PERRETXXIKOREN IZENAK ERE IKASI
DITUGU. ERNE! EZ NAHASTU GIBELURDINAK
ETA AMANITA PHALOIDES-AK, BESTELA...





LH1

DENBORAN BIDAIATZEN


LH1 MAILAKO IKASLEAK FERMIN ETA MADDALE-NEKIN DENBORAN ZEHAR BIDAIATU NAHI DUGUNEZ, DENBORAREN MAKINAK ERAIKI DITUGU.

LEHENENGO BIDAIA DINOSAUROEN GARAIRA JOAN GARA. BERTAN DINOSAUROEI BURUZ HAINBAT ETA HAINBAT GAUZA IKASI ONDOREN, GARAI HARTAKO MAKETA EGIN ETA GURASOEI EGINDAKO ERAKUSKETAREKIN EMAN DIOGU AMAIERA GAIARI.

DENBORAREN MAKINAN SARTU ETA LEHEN GIZAKIEN GARAIRA GOAAAAAAAAAZZZZZZZ!



LH2





OIARTZUNDIK ALOZERA, ALOZETIK OIARTZUNERAT

Zazpiak bat eguna Oiartzunen ospatuko zela eta, zuzendaritzak hezkuntza harreman bat sortzea proposatu zigun. Gure zikloak erronkari eutsi eta martxan jarri ginen. Une horretan gure herria eta eskualdea lantzen ari ginenez, aproposa iruditu zitzaigun beraiekin harremanetan jarri eta egindako lana partekatzea. Horretarako, posta elektronikoko bidez lehen harremana egin genuen, 3. eta 4. mailako ikasle guztion artean adostua. Basaburu ikastolatik jasotako e-maila oso bitxia iruditu zitzaigun, beren euskalkian idatzia baitzegoen.

Egün hon ,

Gü untsa gütützü, eta züek ?

Gü ere bai presan gira Oiartzunerat jitea ziren ikusterat.

Gure ikastolan 42 ikasle gütützü eta 5 andereño.

Ikastola ttipi bat badügü , bena izigarri untsa düzü.

2.urtean 6 ikasle dira ,3.urtean 2 ikasle, 4.urtean 6 ikasle eta 5.urtean 3 ikasle.

Aloze üngürüko herritakoak gütützü denak, Basabürükoak.

(Atherei,Omize gaine,Atarratze,Ozaze,Iruri,Altzai...)

Neskenegünean zonbait Oiartzunerat jinen gira, beraz neskenegün arte !






LH3 eta LH4



Xiberutarrak Oiartzuna etorri bitartean, bildutako herriko eta eskualdeko informazioarekin txostenak osatzeari ekin genion. Eta ongi etorria emateko bi abesti ere prestatu genituen, musikako irakaslearen laguntzarekin.

Urriaren 18an, Zazpiak bat egunean, ikastolako aparkalekuan berekin elkartu ondoren ikastolako jantokira jaitsi eta opari trukea egin genuen. Jarraian, ikastola bisitatu eta gure gelak eta korridorea erakutsi genizkien.



12:30ean, kontzejupean genuen zita. Gutako asko bertan elkartu ginen kamixeta txuri, gorri eta berdeak jantzi-ta. Plazan entsegu bat egin ondoren, eskutik heldu eta kalejiran pleno aretora igo ginen. Bertan ekitaldi ofizialari hasiera eman zitzaion eta tartean gure bi kantuak eskaini genituen. (Begira hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=0Sduopg8Epg&feature=youtu.be>). Oso gustura aritu ginen kantuan, eta baita beren kantua entzuten ere!



Zazpiak bat eguna hiru ikastolon arteko harremanaren hasiera besterik ez da izan. Aurrerantzean ere ekintza gehiago antolatuko ditugu eta horren berri izango duzue.

Gure kantuak dioen moduan...

ZAZPI EUSKAL HERRIEK BAT EGIN DEZAGUN!



LH 5. maila

SUKALDARITZA

Lau egunetan sukaldaritzan aritzeko aukera eskaini ziguten.

Hasieran, seigarren mailakoentzat izango zen bakarrik, baina bosgarren mailakoek ere egin nahi genuen eta horregatik 5. eta 6. mailakoentzat egin zuten.

Jantokiko goiko aretoan menua prestatzen oso ongi pasa genuen, baina moztu, erre eta beste gauza batzuk ere gertatu ziren. Hala ere, esperientzia ona izan zen. Hauxe prestatu genuen:

Lehenengo platera: barrigorriak eta arrautza egosia lore formarekin.

Bigarren platera: urraburu marmitakoa.

Azkeneko, postrerako, mazedonia jogurtarekin eta, nahi zutenek, eztiarekin.

Zapore ezberdinez hitz egin ziguten eta bereizi genituen. Guretzat berria zen bat ere ikasi genuen: umamia. Berezia da eta, adibidez, soja saltsan suma daiteke. Oinarrizko beste lau zaporeak ere dastatu genituen: gozoa, gazia, mingotsa eta garratza.

June de Paz
Oihane Irastorza
Ekhiñe Arjona
Olaia Felipe
Irati Elvira
Nagore Etura
Anne Barron
Udane Cousillas
June Iborra



ARTEA

Antton Mendizabal



LH6. mailakoak **artearen munduan** murgildu gara kurtso hasieran. Euskal Herriko eskultore handiak ezagutu ditugu: Oteiza eta Txillida, batez ere, eta, ondoren, baita haien teknikak praktikan jarri ere.: , , , ... Eskultura mor-doa egin dugu, eta eginiko arte-lanekin 6. mailako pasilloa arte galeria bihurtu dugu. Bistan da unitatean zehar arteaz asko ikasi dugula; eta, gainera, ikaraga-rrri gozatu dugu eskulturak eginaz eta gure irudimenari egin egiten utziaz.

Baina gozaturik hartu badugu, gozatu hori **Antton Mendizabal** eskulturagilearen bisitarekin izan da. Kontatu dizkigu bere esperientziak, nola sartu zen eskulturaren munduan, baina, nagusiki, eskultura bat egiten duenean, guk ikasitakoa nola aplikatzen duen: lehenengo, **ideia** edo adierazi nahi dena pentsatu eta erabaki; ondoren, **bozetoa** egin eskala txikian, jarraian, **materiala** erabaki; gero, **moldea** egin eskala errealean eta, azkenik, **eskultura** egin.





DBH1

TALENT SHOW

Ingeleseko arloan, lehenengo unitatearen barruan, DBH1eko ikasleek "Talent Show" bat egin dugu. Abesti bat moldatu dugu, melodia, letra, erritmoa eta abar aldatuz, eta gelakideen aurrean emanaldia egin gero. Hauek dira taldeetako batzuen autobiografiak.



THE FOUR POTATOES

Our group is called "The Four Potatoes". That is because we like potatoes and we are four in the group. We play rock music.

We are in the same class in Haurtzaro Ikastola in Oiartzun and our ages are from 11 to 12 years old.

Some of the group members study music and play instruments after school. For example, June plays the flute, Ekain plays the electric guitar, and Leire plays the flute and the piano.

In the group, Ekain is the singer and the guitar player, June and Leire play the flute, and Asier plays the drums.

We became famous when we played in a festival in Madrid. We have plans to make new albums and new concerts.

(Leire Ibarguren, DBH 1B)



BELIEVE

Our group is called "Believe". That is because we play pop music and we like the name.

We are in the same class in Haurtzaro School. We are 12 years old.

In the group, Uxue plays the maracas, Laiene plays the guitar, Malen is the singer, and Nerea and Yvonne are the dancers. We became famous when we performed in a concert at school.

We have plans to play more concerts and we are going to record an album next year.

(Malen Elizasu, DBH 1A)





DBH2

KONTRABALDEA



SARRERA:

Ainhoa, Katerin, Maialen, Igotz eta Unai gara. Musika taldeko instrumentu bat eraikitzeke proiektuan elkarrekin lan egin dugu. Denon artean erabaki genuen sokazko instrumentu bat egitea. Horregatik, kontrabaldea egitea erabaki genuen.

Instrumentu hau kordofonoen familiakoa da.

ZER DA?

Bi soka dituen kontrabaxu antzeko bat da. Izenak esaten duen bezala, balde bat eta sokeaz egina dago, eta giderra erratz makil batekin egina dago.

INSTRUMENTUA EGITEKO MATERIALA:

- Egurrezko makil bat
- Bihurkina
- Plastikozko balde bat
- Zerra
- 2 torloju
- Sokak
- Egurra
- Zinta amerikanarra

PROZEDURA

Instrumentu hau egiteko pausoak:

1. Lehenengo, baldeari 2 zulo egin genizkion makila baino pixka bat txikiagoak, egurrezko makila sartzerakoan mugitu ez dadin.
2. Gero, 2 zuloetatik sartu genuen makila.
3. Ondoren, sartzerakoan, baldea hautsi egin zen, horregatik zinta amerikarra jarri genion.
4. Egurrezko 2 laukizuzen moztu genituen zerrarekin.
5. 2 laukizuzenak bata bestearen gainean baldearen azpialdean jarri genituen torlojuekin.





UNITED IN DIVERSITY

Ingeleseko arloan, “Europe, United in Diversity” unitatea landu dugu. Europa aztertu dugu, arlo fisiko, kulturala eta politiko-ekonomikoan zentratuz. Unitatea bukatzeko, Europako bi herrialde hizpide hartuta, gelaren aurrean aurkezpen bat egin dugu. Hau da horietako bat:

Hello we are Leire and Aritz and we are going to talk about two countries, Spain and Norway and their capital cities, Madrid and Oslo. Norway is in the north of Europe and Spain is in the southwest of Europe. Madrid is in the middle of Spain and Oslo is in the southeast of Norway.

- The size of Norway is 385.178 km², but the size of Spain is 504.782 km². Spain has borders with Andorra, France and Portugal whereas Norway has borders with Sweden, Finland and Russia.
- The average annual temperature of Spain is 19.4 C°, but the average annual temperature of Norway is 8.25 C°, so Spain is warmer than Norway.
- The local food of Spain is Spanish omelet whereas the local food of Norway is fish and lamb. Whereas in Spain they celebrate San Isidro in Norway they celebrate a “Viking” festival.
- The official language of Spain is Spanish, but there are more languages that are Basque, Catalan and Galician.
- Both Norway and Spain are a constitutional monarchy.
- Norway's economy has grown because of an abundance of natural resources, including petroleum, hydro-electric power and fisheries, whereas the economy of Spain is worse, and many industries are closing. The average monthly salary of Spain is 1615 €, but the average monthly salary of Norway is 3554 €. Whereas in Spain the unemployment rate is 25.6%, in Norway the unemployment rate is 3.5%.

DBH4



JAKIN-MINA hitzaldiak

Jakin aurten ere **Jakiunde** antolatutako **Jakinmina programan** parte hartuko dutela gure ikastolako DBH 4 mailako ikasle batzuek.

Zientzia, Arte eta Letren Akademia da Jakiunde. Maila goreneko erakunde aholkulari gisa, gizartearentzat erreferentziatzeko foroa izateko helburuz sortu zen.

Jakin-mina izeneko hitzaldien helburua gazteen garapen intelektuala eta pertsonala bizkortzea da. Horretarako motibazio akademikoa eskainiko zaie, goi mailako profesionalek emandako konferentziaz eta erakustaldiz osaturiko diziplina anitzeko programaren bitartez. Jarduera horrekin gazteen jakintza-eremua zabaldu nahi da eta jakin-mina piztu, interesa erakarrita ezezaguna bilatzera anima daitezen.

Ikasle hauek joango dira:

- Paul San Sebastian Sein
- Jokin Irastorza Zabalegi
- Naroa Del Río Muguerza
- Uxue Oiarbide Gorostiaga
- Oier Etxebeste Fraile
- Irati Zabala Mujika
- Imanol Ugalde Muguruza
- Maialen Oiartzabal Mendibil



ZEURETZAT

Buru barruan preso
dauden pentsamenduak.
Bihotzeko zainek
osatutako espetxean,
harrapatuta
geratutako sentimenduak.
Elkarrekin pasatako
egun luze haietako
momentuak,
gau ilunari eskainitako
sentimendu estali gabeak.

Dena ederki joan arren,
guztiak amaiera du:
zergatik hil egin zinen?
Dena etorri zen hain bizkor,
Itsasoko mareek
itsasoan osatutako
margolana itxuraz aldatzen
duten bezain arin,
udazkeneko hosto lehorrak
erortzen diren bezain azkar.

Agur esan zenigun.
Egun busti
eta ilun hartatik gaur arte
eguzkia ez
da irten, ilargiak ez
ditu betazalak itxi,
baina beti edukiko
zaitugu, lagun,
txokorik
ezkutuenean.

Nahiz eta
urrun egon, gertu
sentitzen zaitugu.
Aspaldi gertatutako
oroitzapen eder eta
goxoak errepikatu
behar ditugu.
Gaur ez bada
bihar, eta bihar ezin bada etzi.
Ez du axola ez denborak,
ezta lekuak ere,
are gutxiago,
orduak.
Ez du inporta non zauden,
urrun edo gertu,
guk zuk hau jakitea
nahi dugu: zauden
lekuan zaudela guk
beti maiteko zaitugu.

Oroitz Sein
DBH 3A

DBH3



HAMALAU

Nire bizitzako denbora asko galdu dut
tontakerietan.

Ez naiz ederrena
ezta hitz-jarioa duena ere.
Eman diezazukedan gauza bakarra
hemen dago,
lerro hauen artean.
Lerro hauen artean
bilatu izan dut,
aurkitu eta galdu.

Bilatu gabe aurkitu zaitut
eta ez zaitut galdu nahi.
Zuri esker nago hemen,
nire maitasunaren distira azaltzen
orri honetako bertsoetan.
Ez dezala inork zutaz ezer esan,
ez zaituzte nik bezala ezagutuko,
kanpotik erakargarri,
barrutik maitagarri.
Baloratu ez zintuztenek ez zuten asmatu
nire besoetatik joaten bazara
egingo naiz drogu.
Zer nahi duzu esatea?
Zure irribarrea ikustean
dena atzean uztera naramazu
ez dakit zenbat iraungo duen gureak
zurekin momentua bizi dut, maitea.
Momentuz sei hilabete bete berri
eta mila gehiago izango direla badakit.
Eskatzen dizudan gauza bakarra
nire seme-alabek zure abizena eramatea,
zure eskutik inoiz ez askatzea
eta egunero zure alboan esnatzea.
Eta hori betetzen baduzu,
behar duzuna eskainiko dizut.
Ilargia eskatu, nik emango dizut.
Zure gorputza neurearekin dagoenean
izarretara eramaten nauzulako,
munduan biak bakarrik gaudelako,
Edenean,
mundu ertzean.

Ane Rodriguez
DBH 3B



GERNIKA

Bazen behin,
Euskal Herrian
Herri tiki bat
Gernika
izenekoa.
Herri lasaia,
herri trankila,
herri gozoa,
zen Gernikako herria.

Paisaia berdea
piperren kolorekoa,
Urdaibaiko haizeak
laztandutako ingurunea.

Olentzero jaisten zen eguna,
Merkatuko eguna,
jende ugariz beterikoa,
arbaso zaharren
baratzeko produktuekin
osaturikoa.

Alemaniano arranoa eta
Espainiako zezena,
bateratu ziren
egun zaratsatu hartan.

Animalia haien
gorrotoa zurrumbilo itogarri
bihurtu zen,
ekaitz beltza.

Ehunka Txorien tropak
bidali zituzten,
haien tripetatik
lehergailuak jaurtiz.
Lehergailuek meteoritoak ziruditen
Talka egiten zuten bakoitzero,
dena suntsitzen zuten.
Eta lehergailuen soinuak
belarriak zulatzen zituen:
Bom! Bom! Bom!


Herri txiki hark
sumendia zirudien,
aberri hura
ez zen lehen zena.

Guda hasi da.

Ekhi Aristizabal
DBH 3B



Zer da zuntz optikoa?




Zuntz optikoa hari itxurako uhin gida bat da eta potentzia optikoa (luminikoa) garraiatzeko gaitasuna du, gehienetan laser batek edo LED batek sortua.

Nola funtzionatzen du?

Seinaleak igortzeko argi igorgailu bat erabiltzen da, arruntak LED diodoa edo laser diodoa dira. Orduan, beiraren mutur batetik informazioa transmititzen da, argia edo seinalea honen barruko paretetatik rebotatu eta beste muturrean jasotzen da. Azken mutur honetan fotodiodo batek argia seinale elektrikoan bihurtzen du.

Zerez egina dago?

Zuntz optikoa belrazkoa izaten da, polisiliziozkoa. Zuntz hau altzairuzko, polietilenozko eta beste hainbat materialazko geruzen barruan egoten da, kanpoko faktoreek honen transmisioa oztopatu ez dezaten eta zuntza babestua egon dadin.



Zer bilakaera eta eragina izan du?

Charles Kao-k, bere doktoretza-tesian (1966), komunikazio loturretan erabilgarri izateko, zuntz optikoak gehienez izan zezakeen galera 20 dB/km-tan jo zuen. 1970ean Corning Glass Works-entzat lan egiten zuten Maurer, Keck, Schultz eta Zimar ikertzaileek lehenengo zuntza egin zuten, silizioa titanioarekin dopatuz. Galerak 17 dB/km-koak ziren.

Zuntz optikoa erabili zuen lehen lotura transozeanikoa TAT-8 izan zen, 1988an ezarri zena. Orduetik ugariak izan dira zuntz bidez egindako modu honetako loturak, baita hirien artekoak ere, eta poliki-poliki bere erabilera operadoreen enbor sareetatik azken erabiltzaileetara ino hedatuz doa



OIARTZO

DUELA URTE ASKOKO PISTEN BILA JOAN DIRA ARITXULEGIRA

**EGURALDIK LAGUNDUTA, PAISAIA
 MOTA ASKO ETA HARRI MOTAK IKUSI
 AHAL IZAN DITUZTE.**

Garazi Auzmendi

Ibilbidean zehar atera ditzakezun paisaietako bat.

Duela aste batzuk, urriaren 2an, Oiartzo Batxilergo Ikastolako bigarren urteko letretako ikasleek Artxulegira ibilaldia bat egin zuten, antzinako arrastoak harri ezberdinetan bilatzera.

Harriak ikusteaz gain, paisaia mota asko ikusi zituzten, nahiz eta ezin izan zituzten inguruko paisaia politenak ikusi zegoen lanbroarengatik. "Nahiz eta ezin izan ditugun Pirinioetako paisaiak ikusi oso ingurune polita da", zioen ikasleetako batek.

Ikasitakoa erakusteko, hurrengo egunean ikastolan bertan, taldeka blog bat sortu zuten ateratako argazkiak eta azalpenak erabiliz.

Ikasleak, goizeko 9:15ean atera ziren Oiartzotik Artxulegira bidean autobus batean. Hara iritsi eta ibiltzen hasi ziren gelditu gabe, argazkiak ateratzen eta azalpenak jasoz. "Egun osoa ibilaldia ez izateko gehiegi ibili ginen eta oso erritmo bizian; egun osoan zehar egiteko ibilaldia zen", esan zuen ikasle batek.

Goiza bukatzeko minetatik Erreteriarra abiatu ziren. Bidegorrian barrena irakasleak ez zituen azalpen asko eman denbora faltagatik.

Ibilbidean zehar atera ditzakezun paisaietako bat.





Arteko lanak

DBH 4. mailako Arte irakasgaia hautazkoa da. Ikasturte honetan 19 ikasle daude taldean. Arloa hiru ataletan banatzen da: Artearen historia, kontzeptuen adierazpenerako artearen hizkuntza eta bizipen, sentimendu eta ideiak kanporatzeko arteak eskaintzen duen bidea. 1. ebaluazioan ikasleek beren autorretratuak eta perspektiba landu dute. Hona hemen horietako lan batzuk.



AUTORRETRATUA
Ekhiñe Irazusta



AUTORRETRATUA
Intza Errandonea




AUTORRETRATUA
Olatz Iragorri



AUTORRETRATUA
Amaia Cortes




PERSPEKTIBA Maddi Puy



PERSPEKTIBA Nerea Oiartzabal



PERSPEKTIBA Enara Elizegi



PERSPEKTIBA Ian Villar



LARTAUN ABESBATZA, URTE ASKOAN

Aurten 50 urte betetzen ditu 1964an abiatu zen Oiarztungo Lartaun Abesbatzak.

Jon Oñatibia orduko herri-eragileak biltzen zituen Lartaun elkartearen barruan, Ameriketatik herriak zerbait behar zuen ustearekin itzuli ostean eta erantzun zabal-lortu zuen. Denerako balio zuen gizona ei zen (abesbatzako zuzendaria, txistulariena, euskarako irakaslea...) eta horrek oiartzuar kulturako erreferente bihurtu zuen.

Hasiera hartan bere alboan zituen Periko Mitxelena eta Jesus Mari Nuñez laguntzaile gisa, batez ere, abeslarietako oinarritzako solfeo apur bat irakasteko entsegu orduen aurretik.

1969an Jonen heriotzak umezurtz utzi ondoren, Perikoren gidaritzapean egin zuten bolada bat, Joxe Manuel Azkue organista iritsi artean. Hurrengoak Iñaki Altuna izan zen, denbora luzez. Agustin Mendizabalekin zeudenean, Izotz koroko gazteak Lartaunera batu ziren, baina, denborarekin, horietako askok familia izan zuten eta abesbatza utzi beharrean suertatu ziren. Alaitz Guridirekin urte askoan ibili dira, tartean, bere haurdunaldian zehar ordezkatu zuten Leticia Bergara eta Fernando Botorekin, zuzendaritza-munduan hasiberriak garai hartan. Orain Maialen Dorronsoro gazteak zuzentzen ditu, 2009. urteaz geroztik.

Badira urtero errepikatzen diren ekitaldiak: beste abesbatzekin hiru truke inguru, Xanistebanetako meza nagusiko koro-lanak egitea, Santa Zezilia eguneko kontzertua, Landarbasok antolaturikoa, Kantukantari egitasmoa... Gainera, bidaia anitz ere antolatu izan dituzte, izan trukeen barruan edo bestela. Horien artean daude Katalunia, Asturias, Lurdes eta abarretara eginikoak.

Hala ere, 50. urteurrena ospatzeko ekitaldi-zerrendena nabarmenki handitu dute. Udaletxean argazki-erakusketa historikoa antolatu zen, Lartaunen bizitza laburbilduz. Erreterriako Madalena ermitaren basilika-izendapenean parte hartu ondoren, San Inazio egunean Harri Beltzak antolatu zuen kontzertuan jo ahal izatea oso garrantzitsua izan zen, urtero maila handiko musika-taldeek ematen baitute.

Herriko Festetako txupina botatzeko ohorea ere izan zuten. Irailaren 20-21eko asteburua berebizikoa izan zen: larunbatean Oñatibiaren Euskal Show ikuskizunean oinarrituta Euskal Oihartzunak obra antzeztu zuten Elorsoro Kiroldegian dantzarien laguntzaz, lan eskerga egin ostean; igandean, berriz, elizan kontzertua eskaini zuten. Bizi diren zuzendari ohi guztiek abesti bana zuzendu zuten, 50 urte hauetan korotik pasa diren abeslari guztiekin bigarren zati bati ekin aurretik. Egun berean ia 200 lagunekin egin zuten bazkariarekin itxi dute ospakizunen kapitulu hau.

Abesbatzako partaideak itxaropentsu dira, eta espero dute beste urte askoan herrian izango dugula Lartaun.

(Informazio-iturria: Moises Gonzalez –lehendakaria eta abeslaria- eta Feli Garañori –abeslaria- eginiko elkarrizketa)

*Goiuri Arzallus
Jokin Irastorza
DBH 4. maila*



Erronka 2014-2015

EGUNA ARGAZKITAN

Aurten ere, iaz bezalaxe, Erronkan parte hartu dugu. Kilometroez goatzeko beste aukera bat. Aurtengoan ez dugu iaz bezainbesteko zortarik izan; zaila da bi urtez segidan irabaztea, eta beste-ei ere zerbait utzi behar genien. Baina ederki pasa dugu: kirola, lehiaketa, lagunartea, probak, abentura, eta bazkari goxo-goxoa doan!


Argazki batzuen bidez erakutsiko dizuegu nolakoa izan zen gure eguna. Ea hurrengo urtean zuek ere animatzen zareten!



Hona gure taldea. A ze ekipoa!



Lehenengo proba kapitainena izan zen. Sei aldiz jo behar zen txapa, ahalik denbora gutxienean. 23 kapitainetatik, lehenengo zortzien artean sailkatu ginen; probak hautatzeko aukera izan genuen, beraz. Argazkian Xabier ikusten dugu kontzentratuta! Ondokoak ere horrelaxe daude, adi, probari begira. Primerako kapitaina izan dugu aurten ere!



Taldeko lehen proba: eskalada. Sarean gora igo, txikota hartu edo utzi eta zubi tibetar bat igaro, erreleboa, hau da txikota, taldekide bati emateko. Han ibili ginen erdi zintzilik, txiribuelata, batzuk eskuen indarrez bakarrik (e, Oroitz?), eroriko batzuk tartean (e, Oroitz?)...



Taldeko bigarren proba: lasto-fardoak. Buruz behera ariketa matematiko bat ebatzi, eta erantzunarekin fardoaren giltzarrapoa askatu behar genuen. Ai gure matematika! Hilabete baino ez dugu behar izan zer zen egin behar genuen ulertzeko. Gu bai azkarrak!



Eta azkenean bagoaz poliki-poliki Xabiri lasto-fardoe-kin bidea egiten. Azkenak izan ginen, baina lortu genuen froga bukatzea. Zenbat sufritu genuen proba honetan!



Hona hemen traizioz ateratako argazki xarmanta. Tripa ere bete beharra genuen eta hanburgesa handi bat ederki etorri zitzaigun indarberritzeko. Bazkalorduko ilara luze hartan, beste taldeekin harremana sortzeko aukera izan genuen eta lehen etsaiak zirenak laguntzat hartu genituen.



Bazkalostean, finalerako errepekan parte hartu genuen. Bertan, zenbait galdera erantzun behar genituen A, B edo C aukeratuz eta fitxak gu ginelarik; ustez zuzena zen erantzunaren lekuan kokatu behar genuen geure burua. Hor demostratu genuen zeinen azkarrak garen, eta baita ongi demostratu ere, eliminatzen azkenetakoak izan baikin! Baina tamalez ez genuen finalerako txartelik jaso.



Taldeko beteranoak ere pentsatu eta pentsatu ikusten ditugu. Iazkoan ez genuen proba hau bete beharrik izan... Eragin buruari neskak!



Eizmendi izan zen errepeko azken partaide oiar-tzuarra. Gizajoari gure urduritasuna kutsatu genion, eta gure iritzi kontrajarriek hanka sartze soil bat ekarri zuten; nahikoa jokoz kanpo geratzeko.



Azkenik, eta ez horregatik garrantzi gutxiagokoak, gure animatzaile pertsonaletako hiru. Beraiek izan ziren gure urduritasuna haien animoekin desagerraztea lortu zuten bakarrak, adibidez, masaje eragin-garrien bitartez (e, Soroa?). Eskerrik asko bihotzez!

SUKALDATU

**Basque Culinary Center-ekin
elikadura osasungarria eta
sostengarria sustatuz**

“Sukaldatu” Basque Culinary Center-ek, Ikastolen Elkartek eta Eroskik martxan jarritako proiektua da. Familiarteko sukaldaritza sustatzeko eta familietan elikadura osasungarria bultzatzeko xedeak ditu. Programa azaroaren 18an abiatu zen Haurtzaron, eta ikasturte honetan guztira 16 ikastolak, 10 eta 14 urte bitarteko 1.280 neska-mutikok eta 320 gurasok hartuko dute parte. Proiektuaren abiapuntua honako gogoeta hau da: elkarrekin sukaldatzea eta jatea funtsezkoak dira familian eta heziketan, batez ere ikasleentzat.

“Sukaldatu” proiektuaren helburua sukaldaritza-
ren eginkizunari zenbait alorretan balioa ematea da, hain zuzen osasunean, familiarteko harremanetan eta tokiko aberastasunean, tokiko produktuak erabiltzearen bidez, sukaldaritzak alor horietan duen eragin onuragarria dela eta.

Proiektuaren helburua da euskal ikastoletako haurrek ez ezik, familiek ere sukaldaritza eta elikadura orekatuaren garrantziaz kontzientzia hartzea. Horrela, familiak ekimenaren oinarri bihurtzen dira. Proiektuak hiru ardatzen bidez –ikastola, familia eta denda edo supermerkatua, familiartean kozinatu eta jateak osasunean duen garrantziaz kontzientziatu nahi du, alde batetik, eta bestetik, sukaldaritza osasungarriaren eta osasun onaren oinarriak ezagutarazi: kozinatuz gozatzea, elikagai freskoak aukeratzea, produktu industrializatu gutxi kontsumitzea eta sukaldean elkarrekin aritzeko denbora ematea, hain zuzen.

Gure ikastolan lau goizetan banatutako lantegien bidez garatu zen, LH 5 eta 6. mailetakako ikasleekin. Lantegiotan, nutrizio-jarraibideak eta elikatze ohitura osasungarriak ez ezik, tokiko eta denboraldiko produktuak eta sukaldaritzari buruzko nozioak ere irakatsi zitzaizkien. Neska-mutilek irakasleekin on-line erosketak egin; ondoren, lantegian otordua prestatu; eta azkenik, sukaldatzeko erabilitako espazioa garbitu zuten. Bukatzeko, sukaldean aritu ondoren, prestatutako jakiak elkarrekin jan zituzten. Gurasoekin eginiko saioa –arratsalde bat– Basque Culinary Center-eko irakasle batek zuzendu zuen eta bertan sukaldatutakoa etxera eraman zuten.



HH1 haur Hezkuntza 1

Begira zer nolako haur ederrak hasi diren ikastolan!



HH 1A

TUTOREA: MAXUS RETEGI

GOIAN EZKERRETIK ESKUINERA

EIDER PORTU, JON SAN JOSE, GAROA KORTA, UDANE BEREAU, AINO ZUBIZARRETA, AIMAR ARANBURU, ASIER VALDIVIELSO.

ERDIAN EZKERRETIK ESKUINERA

MANEX ODRIUZOLA, ARHANE ZABALA, ANE LAKA, OIER RAMOS, ENDIKA DRIOZOLA, ARHANE OTAEGI, MIREN SANCHEZ, ARENE LUJANBIO.

BEHEAN EZKERRETIK ESKUINERA

LORE ARTOLA, AMETS MURO, LUR MARTIN, NAROA MENDEZ, AITOR AGIRRE ETA NEREA CALZADA

HH 1B

TUTOREA: ARANTXA LOPEZ

GOIAN EZKERRETIK ESKUINERA

IRAIA ARABOLAZA, ANER OTEGI, LEIRE VILLALUZE, OIER ESNAOLA, IZARO AYERZA, VALENTIN VOLPE, MADDI ZUMETA, NAHIA SAGASTI, ARAI MARTINEZ, AINARA LEKUONA, UGAITZ MARICHALAR.

BEHEAN EZKERRETIK ESKUINERA

JULEN SAN ROMAN, AMETS HEVIA, NAHIA FERNANDEZ, HANOT MEDINA, AROA PINILLOS, MIKEL ARANBURU, ENEKO GOROSTIDI, JARE ARRIETA, ADUR LARRAYA, AIORA DOS ANJOS.



HH 1C

TUTOREA: IZASKUN SISTIAGA

GOIAN EZKERRETIK ESKUINERA:

ANDER REVILLA, MARIA ARRIZABALAGA, KATTALIN ZALAKAIN, OLIVIA IGEA, IZADI IBARGUEN, INTZA ETXEBESTE, GORKA ETXEBESTE, HODEI GOMEZ, UNAI TREKU, ELUR GOÑI, ISAKA UNAX NDONG.

BEHEAN EZKERRETIK ESKUINERA:

KATTALIN ALIJOSTES, AIMAR FALERO, OIHANE AROZENA, ARIANE ZUBIZARRETA, MANEX ARABOLAZA, FERNANDO MUNTEAN, NIKOLE ARISTIZABAL, UNAX OTAEGI, ARIANE MUGUETA, EKAIN IRIGOIEN.



HH 1D

TUTOREA: ANA GELBENTZU

GOIAN EZKERRETIK ESKUINERA

IRATI GELBENZU, DANIEL APEZETXEA, ALAIN URANGA, AHETZ KORTAJARENA, AITANA BARRON, AIUR LERMA, NAIA OLAIZ, ONINTZA PORTU, ANDER PEDREÑO, IÑAKI LIZASO.

BEHEAN EZKERRETIK ESKUINERA

JUNE HUERTA, NOEL DIAZ DE MENDIVIL, NORA IMAZ, LIHER LARREA, MIKEL GAJATE, MAREN ESNAOLA, ANER ELIZONDO, OINATZ ERAUNTZETAMURGIL, ANARI LARBURU, MAIALEN AZPIAZU, IZARO ARBIDE.





www.haurtzaroikastola.eus



Mendiburu kalea, 2 · © 943 49 47 19



GARBITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irun Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@aiocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

© 943 26 04 26 / 943 26 03 91



902150404 943102055



GEZAK S.C.
KINLODEGOTAKO KIDEAKETEN
GOSTON INTEGRAL PULBONATUEN



ELORSINGI KINLODEGIA • Euzkadi, 24
T: 943 492 550 • M: 629 761 802
F: 943 490 501 • gezak@telefonos.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)